

EkoBizi enpresa berria, Tolosaldeetik dator 5 gaztek gogoz sortua. Enpresa honetan teknologia berriari aukera bat ematea pentsatu dugu ingurumena eta gizartearen gaur egungo egoera ikusita. Ideia ona iruditu zaigu, ondo ustiatzeko ideia berritzaile bat sortzea. Horretarako, buia teknologiko bat diseinatu dugu eta merkatura atera dugu.

Jakin da gaur egungo egoera itsasoetan, oso garrantzitsua iruditzen zaigu itsasoak zaintzea eta horiekin batera bertako animaliak laguntzea, desagertzeko saihaspen bat egiteko. Itsasoak zaborrez gainezka daude materialez eta gehienbat plastikoz, horrek guztiak nahiz eta ez pentsatu, munduko biztanleriari ere eragiten dio. Azken batean, arraiak plastikoz bilduta daude eta arrai horiez elikatzen gara. Horregatik, buia teknologikoak ura filtratzea da eta bitarte batean plastikoak bereganatzea duen funtzio eta xedea du, horrela, haien murrizketa sakona egingo du.

Hortaz, plastiko horiek denbora luze baten ostean biltzen ditugu eta bigarren aukera bat ematen diegu. Plastiko eta material horiek zaindu eta kudeatuko ditugu emaitza bat lortzeko. Emaitza hori jantziak izango dira.

Arropa, merkatuan ere salgai dago eta bezeroek erosten duten arropa jantzi bakoitzaren arabera, zuhaitz bat landatuko dugu gizarteari onura on bat ekartzeko eta ingurumenari laguntzeko.

Jada, buia merkaturatzerako, bezeroak gerturatu ziren eta gaur egun, hainbat bezeroekin lanean ari gara eta gure produktu izarra, buia, jada itsasoetan martxan jarri dugu. Nabarmen da laguntza handia ematen ari dela eta bezeroak bai produktuaren eraginarekin eta baita ere prezioarekin kontentu daudela. Buia baten prezioa 520€ dira. Baina baita ere, bezeroekin hitz egin dugu beraien bezeroei eta jendeari zabaltzeko egoera hau buiarekin bakarrik ez dela konponduko ziurtatzea, denon lana dela.